

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Ollo kontseilaria buru, Erriberako kultura eta gastronomia sustatzeko Bartzelonako Nafarren Etxean egin den ekitaldian

*Ehun pertsona inguruk Tuterako Katedraleko Judizioaren Ateko zaharberritze-lanak ezagutu eta herriko produktuak dastatzeko aukera izan dute*

Astelehena, 2018.eko azaroak 12

Bartzelonako Nafarren Etxea Elkarteak Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilari Ana Ollo errezibitu du, Nafarroako Gobernua Erriberako kultura eta gastronomia sustatzeko autonomia-erkidegoetako nafar zentroetan egiten ari den aurreneko buru izan dadin.

Ekitaldian, kontseilariarekin batera izan dira Laura Pérez, Bartzelonako Udaleko zinegotzia; Iciar, Ortiz de Urbina, Nafar Etxeen Federazioko lehendakaria, eta Bartzelonako Nafarren Etxeko lehendakaria.

Bertaratutako 90 pertsona inguruk, gainerako nafar etxeetan egindako antzeko ekitaldietan bezalaxe, Blanca Aldanondo argazkilaria eta Diego Carasusan kazetariak Tuterako Katedraleko Judizioaren Ateari buruz emandako hitzaldia entzuteko aukera izan zuten, eta ikusentzunezko materialaren laguntzaz, bertatik bertara ezagutu ahal izan zuten zergatik den Nafarroako Erdi Aroko artearen maisulan nagusietako bat.

Bi hizlariak Tuterako Katedraleko eskultura-multzo erromatiko-gotiko berezi honen errekreazio polikromatua eskaintzen duten liburuen eta aplikazio informatikoaren egileak dira.

Aurkezpen kulturalaren ondoren, bertaratutakoek Erriberako produktu gastronomikoak dastatzeko aukera izan dute Nafar Bideak kooperatibaren eskutik.

Jendaurreko agerraldian, Ollo kontseilariak esan du “atsegin handia dela beti Katalunian bizi diren nafarregana hurbildu eta gure herrialdeko onenaren ereduak eramatea; hala nola, Tuterako Katedraleko Judizioaren Ateko eskultura-multzo ikusgarri hau edo Erriberako baratzeko produkturik onenak”.

Horrekin batera, eskerrak eman dizkie Nafarren Etxeari eta honen



Argazki-oina testuaren bukaeran.

Zuzendaritza Batzordeari ekitaldia antolatzeko eskaini duten laguntza eta jarrera onagatik, eta Bartzelonan bizi diren nafarrekiko zein ondorengoekiko lotura lana egiteagatik, izan ere, Bartzelonako Nafarren Etxea da egun bazkide gehien duena, 800 inguru.

ARGAZKI-OINA: ezkerretik eskuinera, Diego Carasusán hizlaria, Nafar Etxeen Federazioko lehendakari Iciar Ortiz de Urbina, Bartzelonako Udalaren ordezkari Fernando Marín, Olo kontseilaria, Bartzelonako Nafarren Etxeako lehendakari Koldo Larrea, Bartzelonako Udaleko zinegotzi Laura Pérez eta Blanca Aldanondo argazkilari eta hizlaria.